



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Tributu nagusien laburpena Dirubilketa metatua 2017ko maiatzean

**% 12,2 hazi da Arabako Foru Ogasunaren
dirubilketa metatua**

Maiatzeko dirubilketa metatua 724 milioi euro da

ITUNDUTAKO ZERGAKEK, GUZTIRA

Dirubilketa metatua, 2017ko maiatzean, % 12,2 hazi da 2016ko maiatzeko metatuarekin alderatuta. Guztirako dirubilketa, aurtun honetara arte, 724 milioi euro da.

PFEZ ere hazi egin da (% 5), hilez hil laneko errenten atxikipenak ere hazi egin direlako; hau da, enplegua egonkortzen ari da. Errenta kanpaina ere ondo doa.

Halaber, positiboak dira BEZaren dirubilketari dagozkion datuak ere (% 12 hazi da), eta horrek erakusten du ekonomia jarduerak hobera egin duela, eta kontsumoa ere hazi egin dela.

Dударик gabe, datu positiboak dira, baina goizegi da ondorioak ateratzeko eta komeni da zuhur irautea harik eta jakin arte goranzko joera horrek urte osoan iraungo ote duen.



Prentsa Oharra Nota de Prensa

ZUZENEKO ZERGAK: +14,7%

1) PFEZ: +5%

Lanaren konturako atxikipenak ere hobetuz doaz (% 3,3 hazi dira), lan merkatuaren hobekuntzaren eraginez. Kuota diferentziala ere, errentaren kanpainako lehenbiziko datuak biltzen baititu, % 2,3 hazi da, eta hori seinale da 2013ko zerga erreformak ondorio positiboak ekarri dituela.

2) SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA: +22 MILIOI

Hazkundera, berez, itzulketa gutxiago egin direlako gertatu da (22 milioi gutxiago), 2015eko kanpainaren ondorioz itzultzeko atera den saldoa txikiagoa izan denez gero 2014ko kanpainaren ondoriozkoaren aldean. Hala ere, oraindik ere goiz da jakiteko zer bilakaera izango duten arabar araudiaren peko sozietateek, zeren eta, 2016ko kanpaina oraintxe hasten baita, eta ez baita amaituko uztailaren 26ra arte sozietate gehienentzat.

Beraz, goranzko joera hori gertatu da araubide komunaren peko enpresen konturako ordainketak, iazko urrian hazi ostean, egonkortu egin direlako.

ZEHARKAKO ZERGAK: +8,9%

1) BEZa: +12%

BEZaren bidezko diru bilketa % 12 hazi da aurreko urtearen aldean; zehazki, 27,5 milioi euro gehiago bildu dira, ekonomia jardueraren eta kontsumoaren hobekuntzaren ondorioz.

2) HIDROKARBURUOAK: +4,6%

Beste zeharkako zerga batzuk, kontsumoarekin lotutakoak, hazi egin dira, hala nola hidrokarburoen gaineko zerga.